

A las brillas jugaban muchos; á la barra los más, sin que á la *toca* faltara gente que verificaba apuestas; las mozas por su parte se preparaban á lucir sus ligerezas, combinando jóvenes y muchachas para la realización de los hermosos bailes de nuestro país.

ADRIAN DE LOYARTE.

(Se continuará)

FUERUEN PASIALEKUKO FERİYAK⁽¹⁾

Alkate jauna; ¡arren!
gaur egiñ biar dit,
paperchu au letzia
Jaungoikua gatik,
zergatikan beorri
nola dan aiñ ona,
uste det logratzia
eskatzen zayona.

Eztakit diran zazpi
organillo, denak,
barraka zar oyetan
bullaka daudenak
eznautenak utzitzen
zortzi arrats ontan,
tronpeta ots ayekiñ
minutu bat lotan.

¡Eztaki, es, beorrek
aitzen egonian
belarriko zulora
sartzen diranian
zazpi organilloren
berrogei tronpeta
nola berotzen duben
gizonen kopeta!

Ain gogor jotzen dute
eta gogotikan,
uste det aitzen dala
Astigarratikan.
Batek jotzen du *Norma*
bestiak *Trobador*,
Trabiata, *Marina*,
Nabukodonosor.

(1) Por una distracción de su autor no fué publicada á su debido tiempo esta composición.

gero ondoren Jota
 ¡baña jua nola!
 bost pare bemolekiñ
 arrayiak pola.
 ¡Arren alkate jauna!
 ¡arren entzun bezait!
 beste gañerakuan
 erotu biar zait.

Atzore asi ziran
 seyetako bullan
 eta gau erdiraño
 isildu etziran,
 gero ¡arritu bedi!
 abanera jo ta,
 errepetitu zuten
 zortzi aldiz Jota
 bada ango tunbalen
 danbetakuakiñ
 korde gabe lurrera
 erori zan Martiñ.

Au ezta Fueruaren
 lengo pasiaua,

au da, alkate jauna
 purgatoriyua.
 Nerire gustatzen zait
 musika ondocho,
 baña ez esateko
 orrenbeste, ¡koncho!
 Lengo gabian ere
 maisu baten gisan,
Luchia ta *Martakiñ*
 oyeratu nintzan.

Iruritzen bazayo
 arrazoi detala,
 zerbait egin biardu
 baña beriala:
 eziñ sufri liteke
 soñu gogor ura,
 ¡bigaldu bitza ortik
 nai duten lekura!
 ala logratzen badet
 ori egitia,
 beti famatuko det
 gure alkatia.

VICTORIANO IRAOLA.

